



ARAUDIA 2025

8 ko FUTBOLA (Partidetza ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, **EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK** antolatuko ditu. Gasteizko Lakua 03 Udal futbol zelaietan (Araba), 2025ko maiatzaren 24, 25 eta 31n.

1. JOKO SISTEMA

Kategoria: neska infantilak, 2011 eta 2012 urteetan jaioak.

2. TALDEEN OSAERA

Gehienez 19 eta gutxienez 9 jokalaria izango dituzte taldeek, eta horietaz gain ordezkarik bat eta entrenatzailea ere izango dituzte.

Aktan gehienez 14 jokalaria eta gutxienez 9 agertuko dira.

Talde batek gutxienez 9 jokalaria aurkezten ez baldin baditu, partida berdina jokatu da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariek, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariek emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna emanez gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu



beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du partidari parte hartu.

Kirolariaren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari alde aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalarien zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2 - 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaketa Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokotarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalarien parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.

3. JOKOAREN IRAUPENA ETA ALDAKETAK

35 minutuko bi zatitan banaturik dago partida eta 10 minutuko atsedenaldia du. Zati bakoitzak 17minutu eta 30 segundoko bi tarte izango ditu. Beraien artean 2 minutoko atsedenarekin.

Jokalaria guztiak (ordezko denak, ordezko atezaina egonez gero ere) lehen zatiko tarte bat jokatu beharko dute gutxienez.



Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentzioa jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Lehen zatian egin beharreko ordezkapenak, lehen tartearen amaieran egingo dira. Bigarren zatian zehar ordezkapenak mugagabe eta askeak izango dira.

Jokalariak zelaiaren erdigunetik sartuko edo irtengo dira. Atezainak beste edozein jokalariri utzi diezaioke bere postua, epailea aurretik jakinaren gain jarritz gero; atezainaren elastikoa jantziko du jokalaria horrek. Jokalari batek txartel gorria jasoz gero, ezingo du jokatu partida amaitzeko geratzen den denboran; kanporatzea partidako azken hamar minutuetan gertatu ezean, horren ordezkari beste jokalaria bat sartuko da zelaigunera.

4. TXARTEL HORIA ETA TXARTEL GORRIA

Jokalariaren jokabide ez zuzena edo ez duina falta arintzat jotzen badu epaileak, txartel horia erakutsiko dio eta zelaitik botako du denbora baterako (bi minuturako). Behin bi minutuak igaro ondoren, jokalaria hori zelaira itzuli daiteke epaileak baimena ematen dionean.

Epaileak txartel gorria erakutsiko dio eta zelaitik botako du jokalaria honako kasu hauetan: bere ustez, jokalaria jokaera bortitza duenean; joko zakar larriaren errudun denean; hizkera zikina edo iraingarria erabiltzen duenean; edo ohartarazpen bat jaso duen edo aldi baterako kanporatua izan den jokalaria jokaera ezegokia izaten jarraitzen duenean.

5. ZIGORRAK

Egozpenaren aurrean:



- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, honek jokatzen duen hurrengo partidan.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da partida irauten duen bitartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango dute taldeak jokatzen duen hurrengo partidan.

6. JOKOZ KANPO.

Jokalaria bat jokoz kanpoko posizioan egongo da, aurkako taldearen 13 metroko gune barruan egonda ateko marratik baloia baino gertuago badago, jokalaria eta aipaturiko marraren artean aurkako taldeko bi jokalaria edo gehiago egon ezean.

7. FALTAK NOLA GAUZATU. ZIGOR JAURTIKETA.

13 metroko marratik kanpo adierazitako faltak jaurtiketa libre batekin zigortuko dira. Falta horiek zuzenean jaurtiko dira egindako leku beretik, zuzenean puntu bat lortzeko aukera emanez taldeari. Aurkako jokalariek bertatik 6 metroko distantzia minimora egon beharko dute.

Jokalaria bere taldearen 13 metroko gune barruan falta eginez gero, epaileak penaltia adieraziko du eta ekintza horren larritasunaren arabera zigortuko du jokalaria, futbol hamaika jokoko arauak aplikatuz.

8. ARAUZKO DENBORA IGAROTZEAN.

Talde bakoitzak hiru jaurtiketa egingo ditu penalti-puntutik, txandaka. Hiru jaurtiketen amaieran berdinketak jarraitzen badu, jaurtitzen jarraituko da talde batek huts egin eta besteak gola sartu arte.

Jardunaldi bakoitzean lortutako emaitzak kontuan hartuko dira soil-soilik haren sailkapena ezartzeko, eta ez dira inola ere bi jardunaldietako emaitzak batuko azken sailkapena zehazteko.

Jardunaldi bakoitzeko lpostuak ezartzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:



Bi talderen arteko berdinketa gertatuz gero:

1. Euren artean jokaturako partidaren emaitzagatik.
2. Berdinduta dauden taldeen penaltien txandako emaitzengatik.

Hiru talderen arteko berdinketa gertatuz gero:

3. Jardunaldian zehar lortutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
4. Jardunaldian zehar sartutako gol kopururik handienagatik.
5. Penaltietako gol-aldeagatik, jardunaldian zehar.
6. Penalti gutxiago jaurtitzeagatik, jardunaldian zehar.
7. Zozketa bidez.

9. BALOIA

4 zenbakikoa izango da baloia, honako ezaugarri hauek dituen. Berotzeko baloiak taldeak ekarri beharko dituzte.

10. ZELAIA

Txapelketaren programan azaltzen den araberakoa.

11. JOKO ARAU OSAGARRIAK

Aipaturiko arauak aurreikusten ez dituzten egoeretan futbol 11ko arauak aplikatu.

12. KIROL SARIAK

Lehenengo hiru sailkatuentzako garaikurra.

13. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

14. AZKEN OHARRA



EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- a) Araudi honen barruan aurreikusirik ez dauden egoeretarako honako hauek izango dira kontutan:
14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketaren diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlearitzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioako lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.